


NAFARROA ZUREKIN **AURRERA**

2015-2017





Aurkibidera itzultzeko sakatu ikurra ↑



↑
Sakatu borobilak



2015-2017 HASIERA

“Dagoeneko badira bi urte Nafarroako herritarrek aldaketaren alde eman zutela botoa gogoz eta itxaropenez beterik.

Gobernu hau eginkizun argi batekin etorri zen: itxi egin beharra zegoen nafar gizartearen parte handi bati eragiten zioten murrizketa ekonomikoen eskubide urraketan zikloa. Legegintzaldiaren erdia iragan den honetan, datuak oso positiboak dira, eta, hein handian, buelta eman zaio Nafarroako familia askorentzat oso zaila zen egoerari.

Irmo egin dugu lan, eta, orain, bigarren urtean, emaitzak ikusten hasi gara, nahiz eta badakigun oraindik ez dela nahikoa inola ere. Izan ere, hamaika gauza ditugu oraindik hobetzeko, baita etorkizunerako erronka handiak ere.

Bada tentazio bat, aspektu positiboak begiratu eta haiek nabarmentzea eta egindako hutsegiteak ikusi nahi ez izatea. Baina ez dut jokabide horretan erori nahi. Egin dira hutsegiteak, baina haietaz jabetu eta konponbideak bilatu dira, eta zenbaitetan ekimenak birbideratu ere egin dira egokiak ez zirela ikusitakoan. Konponbideak bilatu ditugu, elkarrizketaren eta adostasunaren bidez bilatu ere, baina beti ez da posible izan. Eskua luzatuta eta bulegoko atea irekita lan egitea funtsezkoa da eta izanen da niretzat, Nafarroako lehendakaria naizen aldetik.

Bi urte hauek igaro direlarik, etorkizuneko Nafarroaren alde beldurrik eta konplexurik gabe eta gogotsu lan egiteko garaia da hau. Gizartearen gehiengoa batzen duen proiektuaren alde egin behar dugu lan, proiektu honek bide izan behar baitu gure seme-alaben etorkizuna bermatzeko eta, halaber, hemen bizi garen edo gurera etorriko diren guztientzako.

Nafarroa sustrai sakoneko lurraldea da, eta asko du esateko egoera globalizatu berri honetan, handikeriarik gabe, beti oso gurea izan den eta mundu osoan ezagutzen gaituzten maneran: tinko, lanean, erantzukizunarekin, alai eta, jakina, elkartasunarekin.

Hala izan da mendetan, eta zalantza izpirik ez dut halaxe jarraituko dugula, Nafarroa zurekin batera doalako aurrera”.

UXUE BARKOS NAFARROAKO LEHENDAKARIA



ABIAPUNTUKO EGOERA

2015EKO UZTAILEAN

“2015ean Nafarroa oso egoera sozioekonomiko zailean zegoen, krisialdi indartsu baten eta hura kudeatzeko moduaren ondorioz. Gizarte arloan ezarri zituzten murrizketa gogorrek egoera ekonomiko ahulean utzi zituzten milaka lagun.

Etorkizunerako itxaropenak ez ziren askoz hobeak, urte oparoetan egindako inbertsioetako askok zor handia ekarri zutelako, oraindik ordaintzen ari garena. Are gehiago, ondoko legegintzaldietan ere baldintzatuko du aurrekontuen zati bat.

Abiapuntuko zor haren ondorioz diru aldetik mugatuta egon garen arren, Gobernu honek azken hamarkadako aurrekontu sozialenak onetsi ditu, eta haietan aurrekontu ez finantzarioaren %28,1 osasunera bideratu da, eta %17,27 hezkuntzara”.



121,5 milioi **%**
Zor publikoaren interesak

2.485 milioi (2044ra arte)
Ezkutuka ordain-sariak (urtero)

30 (2015) milioi **14,5** (2016)
AHTren estatuko zorra

29 milioi
Aparteko ordainsaria

12 milioi
Navarra Arena

3^a Erkidegoa
Gizarte murrizketa

50 milioi
Altxortegia



AURREKONTUAK

“Aurrekontua da Gobernu orok bere politikak ezartzeko duen tresna nagusia eta, era berean, politika horien norabidearen adierazgarri argiena. Aurreko 4 urteetan luzatutako aurrekontuak izan ondoren, 2016ko eta 2017ko aurrekontuak behar zen garaian eta moduan onetsi ziren, azken urteetan Eskubide Sozialetan inoiz izandako inbertsiorik handienarekin eta Garapen Ekonomikoaren arloko asmo handiekin. Gizarte kaudimentsu bat baino ezin delako izan gizarte solidarioa”.

NAFARROAKO AURREKONTUA 2017

Iturria: Nafarroako Gobernua.



GUZTIRA
(ez finantzieroa)

3.730.453.266€



GARAPEN EKONOMIKOA

“Nafarroa beti izan da ekonomikoki lurralde indartsua. Indartsuak ginen gizartea nekazaritzan oinarritzen zenean, eta industriaren aroan ere indartsuak izan gara. Orain, aldaketa globalizatuen garaia dugu, eta berritzeko tenorea dugu, ikuspegi argiarekin eta adimenez jokatzeko tenorea, gizartea eta industria erabat eraldatzen ari den ingurune digital berrira egokitu gaitezen.

Bide horretan aurrera egiteko, eta Nafarroako gizartearen eta eskualdeen kohesioa lortzearen, heldu diren hamarkadetan Nafarroako ekonomiaren oinarria zertuko duen Estrategia Adimentsua abiarazi da.

Ekonomia moderno eta lehiakor horretan, aipagarria da, berrikuntzaren eta sormenaren aldeko apustu garbiaz gainera, industriaren eta nekazaritzako elikagaien sektorearen indarra. Horrekin batera, ongi planifikatuta behar diren inbertsio eta azpiegituren politika -Europarekin lotuko gaituen trenbide korridorea edo Erriberara kalitatezko ura eramateko egin beharreko obrak, esaterako-, garapen jasangarriaren erreferente bihurtuko gara.

Azken bi urteetako adierazleek erakusten digute bide onean goazela. Enplegua hazten ari da, eta gero eta enpresa gehiago ari dira sortzen, eta nazioartekotzearen alde egin dugu garbi, jomuga Europan eta hazten ari diren ekonomietan jarririk”.











NAFARROA 2030 HELBURUA

S3

ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESTRATEGIA

6 sektore estrategiko

-  **Ibilgailuak eta mekanika**
-  **Elikakatea**
-  **Osasuna**
-  **Energia berriztagarriak**
-  **Turismoa**
-  **Industria sortzaile eta digitalak**

5 Lehiakortasun- faktore

- **Enpresa garapena** Nazioartekotzea, ekintzailtza, klusterrak-lankidetzak, eta abar
- **Berrikuntza** Teknologikoa eta ez-teknologikoa
- **Azpiegiturak** PHT, banda zabala, aireportua, ura
- **Administrazio publikoa** Efizientzia eta fiskalitatea
- **Hezkuntza-prestakuntza** Derrigorrezkoa, Unibertsitatekoa eta LH

OPAROTASUNA

NAFARROA

2030





JASANGARRITASUNA

NOLA EGINEN DUGU?

Klusterren politika

- ▶ AUTOMOZIOA
- ▶ HAIZE-ENERGIA
- ▶ NEKAZARITZAKO ELIKAGAIAK
- ▶ FUNCIONAL PRINT
- ▶ OSASUN TURISMOA
- ▶ AIN

24 ERRONKA **102** EKINTZA

-  **38** INBERTSIO
-  **23** HOBEKUNTZA SEKTORIAL
-  **17** PRESTAKUNTZA
-  **12** AZPIEGITURA

Plan Estrategikoak


PLANAK	HELBURUAK
2030. urte arteko Nafarroako Energia Plana	▶ %50era iristea energia berriztagarriaren kontsumoa 2030ean
Ekintzailtza	▶ %5 handitzea urtero enpresa aktiboen kopurua
Ekonomia soziala	▶ %20 handitzea sektoreko enplegua 2020an
Lan autonomoa 2017-2020	▶ Urtean 1000 pertsona LAABen alta ematea
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza	▶ BPGren %1,64tik %2,2ra haztea inbertsioa 2020rako
Industria 2020	▶ Industriako enplegua handitzea, 70.000 lanpostu 2020an
Nazioartekotzea 2017-2020	▶ 9,5 milioi € esportazioetan 2020an
Turismoa 2017-2020	▶ Nazioartekotzea: %46 handitzea Europako bidaiarien ostatu-gauak

BIZI-KALITATEA

HAZKUNDE EKONOMIKOA


**GIZARTE
SEGURANTZAKO
AFILIAZIOA**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.




**ENPRESEN
KOPURUA**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.



**BPGaren URTETIK
URTERAKO ALDAKETA**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.






INBERTSIOAK


SODENAren INBERTSIOAK

Iturria: Nafarroako Gobernua.



LAGUNTZA I+G


Iturria: Nafarroako Gobernua.



TURISMOA

Bidaiarien eta ostatu-gauen kopurua (milioitan)

Iturria: Nafarroako Gobernua.



ESKUBIDE SOZIALAK

“Digitalizazioaren ondoriozko krisia eta paradigma sozioekonomikoaren aldaketa desafio dira gaur egun edozein lurralderentzat. Horregatik, lanean ari gara aldaketa hauek ahalik eragin txikiena izan dezaten Nafarroako gizartearen zenbait sektoretan.

Ekonomikoki indartsua den lurralde batek politika sozial ausartak ezartzen ahal ditu. Egoera ekonomiko onari esker, Eskubide Sozialen arloko aurrekontua %25 handitu da 2015az geroztik, eta, horri esker, murrizketa sozialak eta pobrezia estrukturalaren gehikuntza esponentziala geldiarazi dira, eta konpontzen hasi, eta, kohesio soziala helburu, gure gizartearen kolektibo ahulenen aldeko politikak garatu dira.

Helburu nagusietako bat enplegua sortzea izan da. Nabarmen egin du behera pertsona langabeen kopuruak, eta pobrezia kontrako borroka bizkortu da Errenta Bermatuaren bidez: dudarik gabe garrantzi handiko neurria izan da hori, eta erreferentzia bihurtu da Espainia guztian.

Etxebizitza eta mendekotasuna izan dira gobernu honen ahaleginen beste bi xede, eta, horiekin batera, gizarte zibilarekiko harremana, bizikidetzan eta aukera berdintasunean aurrera egin nahian, azkeneko bi helburuak ezinbesteko ikur baitira zuzentasuna bultzatu nahi dituen edozein gobernu edo gizarerentzat”.





1. Errealitate Sozialaren Behatokia sortzea
Errealitate Sozialaren Behatokia sortu da; horren helburua da ikertzeko eta planifikatzeko gaitasuna indartzea eskubide sozialen arloan.

2. Larrialdi sozialeko laguntza berriak
Toki entitateendako laguntzak ondoko honetarako: etxebizitza gastuak, txirotasun energetikoa, elikadura eta osasun eta hezkuntza gastuak. 9.604 pertsona; horietatik heren bat adingabeak dira.

3. 221 errefuxiatu hartzea
Lehendabiziko 221 pertsona errefuxiatuak hasi dira iristen eta Nafarroan hartu dira.

4. Mendekotasuna dela-eta zerga-arintzea
Erreforma fiskalean zerga-arintzea onetsi da mendekotasun egoeran dauden pertsonendako; 6.000 pertsona baino gehiago izanen dira onuradunak.

5. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren estatutu berriak
Nafarroako Enplegu Zerbitzuko gobernu organoen aniztasuna handitu da.

6. Txirotasun energetikoari aurre egiteko hitzarmenak
Txirotasun energetikoa prebenitzeko akordioak; horrela argindar eta berokuntza etenak saihestuko dira.

7. Mendekotasunerako Laguntzen Bateragarritasunari buruzko Foru Agindua
Mendekotasun egoeran dauden pertsonendako zenbait prestazio eta zerbitzuren bateragarritasuna onetsi da.

8. Europak Nafarroari eman dio gizarte berrikuntzako proiektu bat
Europak Nafarroari eman dio gizarte berrikuntzako proiektu bat, gizarte-bazterketarako arriskua duten Tuter eta Altsasu aldeko 500 pertsona baino gehiago laneratzeko.

9. Gizarteratzeari eta Errenta Bermatuari buruzko Foru Legea
Foru lege honen xedea da gizarte-bazterketan dauden 30.000 pertsonatik gorako talde bati errenta bermatua bermatzea.

10. Etxebizitzari buruzko Foru Legea
Lege honen barnean honako neurri hauek daude, besteak beste: alokairu soziala jaitea, birgaitzeko laguntzak eta alokairuko etxebizitza babestuak eraikitzekeko laguntzak.

11. Laneratze Enpresei buruzko Foru Dekretua
Laneratze enpresen erregulazioa onetsi da, talde ahulak laneratzeko.

12. Incremento 25% de presupuesto infancia

13. %70eko igoera garapenerako lankidetzan
Nafarroako Aurrekontu Orokorretan onetsi da bi urtean %70 handitzea garapenerako lankidetzarako bideratzen diren baliabideak.

14. Foru Legea pentsioak 2017ko LGSarekin parekatzeko
Legearen xedea da Nafarroako pentsioak Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatzea; 22.000 pertsona baino gehiago izanen dira onuradun eta urtean 20.000.000 euroko aurrekontua dago horretarako.

15. Lizitazioa, alokairu sozialeko 524 etxebizitza eraikitzekeko
Etxebizitzak Alokatzeko Planaren lehenengo etxeak eraikitzekeko lizitazioa.

16. Mendekotasuna baloratzeko itxaron zerrendak kentzea

17. Itun berria, adineko pertsonen 120 plaza eskaintzeko eguneko zentroetan
Bikoiztu da adineko pertsonendako plaza itunduen kopurua eguneko zentroetan.


18. Hitzarmen berria ezgaitasunaren sektorean
Sektoreko hitzarmen berria, gatazka urte askoren ondotik, desgaitasuna duten 800 langile baino gehiagoren lan baldintzak hobetzen dituena.

19. Itunei buruzko Foru Lege proiektua onetsia
Gobernuak Gizarte eta Osasun arloko Itunei buruzko Foru Lege proiektua onetsi du.

ENPLEGUA SORTZEA

ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIAREN EBOLUZIOA NAFARROAN


Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio Sistema (SISPE).



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN EBOLUZIOA NAFARROAN

Hilabeteko batezbestekoak

Iturria: Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuak (Enpleguko eta Gizarte Segurantzako Ministerioa)




KONTRATAZIOAREN EBOLUZIOA

Datu absolutuak eta aldaketak.

Datu pilatuak Urte bakoitzeko urtarrila-ekaina.

Iturria: Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio Sistemako (SISPE) datuak izan dira oinarri.




ENPLEGUA SORTZEA

TALDE AHULETAKO
LUZAROKO
LANGABEEN
ENPLEGURAKO
BALIABIDEAK

Gazteak, desgaitasuna
duten pertsonak,
emakumezkoak.


Iturria: Nafarroako
Gobernua.



ENPLEGURAKO
LANBIDE HEZIKETA


Parte-hartzaileak

Iturria: Nafarroako
Gobernua.



LANDUNEN ETA
LANGABEEN LANBIDE
PRESTAKUNTZARA
BIDERATUTAKO
BALIABIDEAK


Iturria: Nafarroako
Gobernua.



ADINEKO PERTSONAK ETA MENDEKOTASUNARI ARRETA EMATEA

PENTSIODUNAK



Iturria: Nafarroako Gobernua.



MENDEKOTASUNA

Laguntzak eta prestazioak jasotzen dituzten mendekotasun egoerako pertsonen kopurua.


Iturria: Nafarroako Gobernua.



TALDE AHULAK

**ERRENTA BERMATUA
ESTALTZEKO
ADIERAZLEAK**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.




- Gizarteratzeko errenta edo errenta bermatuaren babesa duten pertsonak: urteko kopurua, guztira; salbuespenez, 2017. urtean apirileko datuak dira
- Apirilean prestazioa jasotzeko eskubidea izan duten familia unitateak

ONURADUNEN
%32
ADINGABEAK
DIRA

TXIROTASUNA

Txirotasunari aurre egitera bideratutako baliabide publikoak


Iturria: Nafarroako
Gobernua.



ETXEBIZITZA

**ALOKAIRU SOZIALEKO
ETXEBIZITZEN PREZIOA**


Iturria: Nafarroako
Gobernua.



● Iruñerria - Tutera ● Gainerako udalerriak

**HIPOTEKA-
BETEARAZPENAK**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.



OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

“Zerga politika da Ongizatearen Estatuaren zutabe handietako bat. Gobernu honen lehenbiziko mugarrietako bat zerga erreforma zuzena egitea izan zen, errenta altuenei zerga-tasa handitzea duena ezaugarrietako bat.

Errentan egindako ahalegin kolektiboak zenbait bide irekitzen dizkigu: aukera ematen digu Osasun arloan eta Hezkuntzan egindako murrizketak kentzeko eta lehengo egoerara itzultzen saiatzeko, enplegu politikak sustatzeko, familientzako laguntzak handitzeko, pentsioak Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren parera eramateko, eta aberastasuna sortzearen eta Europan Nafarroa lehiakorra izatearren politika ekonomiko egokiak garatzeko.

Eginahal handiak egin dira iruzur fiskalari gogor egiteko. Emaitzak on samarrak izan dira, nahiz eta ez diren oraindik ere aski gizartearen jokabide insolidario eta arduragabe hauek desagerrarazteko.

Kredituei buruzko egoeraren bilakaera oso positiboa da Nafarroan, eta gure lurraldea, gaur egun, A+-tzat hartua dago, hau da, Estatukoa baino bi maila gorago dago”.



**1. Zerga erreforma**

Zerga erreforma, ekitatiboagoa eta progresiboagoa izateko eta Diruzaintzan herentzian hartutako egoera larria itzultzeko xedez prestatua (2007an 1.250 milioikoa zen eta gaur egun 50ekoa da).

2. Aurrekontuen onespina

Onartu dira, 3 urtez luzatu ondoren.

3. ZUEE (Zenbait Urtetarako Esparru Ekonomikoa)

Aurrekontu estrategikorako proiektua, erabakiak hartzeko eta baliabide ekonomikoak planifikatu eta banatzeko prozesuak hobetzeko prestatua.

4. Zorraren finantzaketa minimo historikoetan

Nafarroak zorra baldintza historikoetan finantzatu zuen eta 10 urtean 20 milioi euroko aurrezkoa lortu zuen, 494 milioi euro merkatuan jarri baitzituen %1,59ko interesarekin.

5. Iruzur fiskalaren aurkako plana

Iruzuraren aurkako 2016-2019 plana: 590 milioi euro biltzea aurreikusi da, hots, %5 gehiago.

6. Hitzarmena aztertzea

Azterlan bat egin da eta hartan argitu Nafarroak Estatuari zenbateko diru-ekarpena egin behar dion. Azterlan bat, zeinak bi administrazioetako teknikarien arteko azterlanaren oinarriak ezarri baititu.

7. LEParen deialdia

LEParen deialdia: Ogasuneko 10 teknikari plaza + Ogasuneko 12 kudeatzaile plaza. Xedea: iruzur fiskalari aurka egiteko borroka sendotzea.

8. A motako kreditu-kalifikazioa

S&P-k Nafarroa A mailako ratingean mantentzen du, maila gorenean eta perspektiba positiboarekin, autonomia erkidego batek ezin baitu Estatua baino bi maila gorago egon (Estatuarena BBB+ da).

9. Zordunen zerrenda argitaratzea

316 pertsonako zerrenda argitaratu da (denen artean 238 milioi euro zor dute).

10. Altxorra baino beheragoko zorra duen 1. autonomia erkidegoa

Nafarroa lehen autonomia erkidegoa da, Estatukoa baino zor merkeagoa finantzatzea lortu duena. Haren finantza sendotasunaren erakusgarri.





**FINANTZAZKOAK
EZ DIREN AURREKONTUAK,
DEPARTAMENUZ DEPARTAMENTU,
2016AN ETA 2017AN.**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.

**ZERGA
DIRU-BILKETA
LIKIDOA**

Lehen seihilekoa.


Iturria: Nafarroako
Gobernua.





KAUDIMEN EKONOMIKOA

Iturria: Nafarroako Gobernua.



ZERGA IRUZURRA

Iturria: Nafarroako Gobernua.



Nafarroako Ogasunak

238 milioi euro


ZOR DIZKIOTEN

316 pertsona eta enpresen zerrenda argitaratu du

ZERGA IRUZURRA

2015, 2016 eta 2017ko azterlan konparatiboa, bai hautemandako kasuena, bai kalkulaturako diruarena.

Iturria: Nafarroako Gobernua.



Diru-bilketa, osotara


*Diru-bilketa likidoa



HITZARMENA

Estatuari eman beharreko diru-kopuruaren urteko grafiko konparatiboak eta Estatuak Nafarroan egindako inbertsioenak, alderaturik.


Iturria: Nafarroako Gobernua.



ENPRESEN TRIBUTAZIOA NAFARROAN ETA ESTATUAN (SZ + PFEZ)

Zerga-tasak.

Iturria: Nafarroako Gobernua.



LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

“Gobernantzan halako garrantzia duen arlo honetan, kalitateko zerbitzu publikoen aldeko apustua egin dugu herritarrei harrera eraginkor eta efizientea eskaintzeko.

Horretarako, departamentu honetarako aurrekontua nabarmen igotzearekin batera, lan publikoaren eskaintzak egin dira, 516 lanpostu, hain zuzen ere, ordaindu egin da ordaintzeko zegoen paga estra, eta soldata igoerak egin dira. Bestalde, Banda Zabalaren Plana jarri dugu abian, garrantzi handiko plana, Nafarroako bazter guztietara ailegatu dadin kalitateko konexioa, baita irismen zaileko herrixketara eta industria poligonoetara”.





1. Ordaindu gabe zegoen aparteko paga ordaintzea
2012ko abenduko aparteko pagaren gainerako zatia ordaindu zen; osotara 27.952 langilek jaso zuten eta zenbatekoa, osotara, 24.416.647,60 €-koa izan zen.

2. Bateratzeari buruzko neurriak funtzionarioendako. 30.000 pertsona
Lanaldi murrizketaren modalitateak handitu dira eta lizentziak eta baimenak hobetu dira zenbait kasutan, laneko eta familiako eginkizunak betetzeko.

3. Banda zabala
Banda zabalaren plana egin da; horren xedea da lurralde osoa estaltzea %100eko estaldurarekin, 30mp-etan, 2020. urterako.

4. Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistema, toki entitateekin batera
Plan berriaren asmoa da SITNAn eskura dagoen informazioa osatzea eta erabiltzaileei arreta ematea; horretarako hobekuntzak garatuko dituzte erabiltzaileen beharrei erantzuteko eta horiek parte hartuko dute modu aktiboan.

5. Suhiltzaileen lanpostu gehiago
Nafarroako Gobernuak 2017., 2018. eta 2019. urteetan onetsiko dituen lan publikoaren eskaintzen barnean suhiltzaileen 55 lanpostu sartuko dira, osotara; horiek gehituko dira 2015eko 30 lanpostuei eta 2016ko 15 lanpostuei.

6. Foruzainen lanpostu gehiago
Foruzaina izateko 37 lanpostu betetzeko oposizioaren deialdia. Foruzainen azken promozioa, 20.a, 2010. urtean sartu zen.

7. VioGén sistema
Hitzarmena Barne Ministerioarekin, Nafarroako babes aginduak koordinatzeko puntuaren sostengua den aplikazio telematikoa genero-indarkeria kasuetarako osoko segimendurako sistemarekin integratzeko.

8. Delituen biktimak artatzeko bulegoa
Debaldeko zerbitzua da, delituak jasan dituzten pertsonak artatzeko, Nafarroako Gobernuaren Justizia Zuzendaritza Orokorraren barruan.

9. Obrak Nafarroako Jauregian
Nafarroako Artxibo Nagusi zaharreko estalkia berritu da eta esleitu da eraikin horren barnealdea, lorategiak eta iturria birgaitzeko proiektuaren erredakzioa.

Egindako/aurreikusitako zenbatekoa:

2016	345.529,58€
2017	1.341.681,43€
2018	2.173.000,00€
2019	701.675,00€
2020	300.000,00€
GUZTIRA	4.861.886,01€

10. LEPen deialdia. 2015-2017: 516 LANPOSTU
LEPak deitu dira 516 lanpostu betetzeko, Hezkuntzan, Osasunbidean, NOPLOIn eta Funtzio Publikoan.


11. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluaren eraketa

12. "Bizi bizikletan segurtasunez" kanpaina
Segurtasunerako eta errespeturako kanpaina, bide-segurtasunaren arloan, bizikleta nahiz kotxea erabiltzen duten pertsonen zuzendua.



**HASIERAKO
AURREKONTUAREN
EBOLUZIOA**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.



**2016KO LAN PUBLIKOAREN
ESKAITZA**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.

118 Lanpostu

ADMINISTRAZIO ERROA

192 Lanpostu

O-NOZ

200 Lanpostu

HEZKUNTZA

6 Lanpostu

NOPLOI







**URTE BAKOITZEKO
HASIERAKO
AURREKONTUA,
ZUZENDARITZA
NAGUSITAN
MULTZOKATUA**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.

**ZUZENDARITZA NAGUSIETAKO
AURREKONTUEN EBOLUZIOA
2014-2017**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.



HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

“Bakea eta bizikidetzeta, gobernu honen lan ildoetako batzuk dira, hainbeste urtean Nafarroak sufritu duen egoeraren ondoren hain beharrezkoak.

Biktinek eskubidea dute egia, justizia eta ordaina izateko. Inki-ankarik gabe diogu, eskubide horiek dituzte bai historia hurbileko terrorismoaren biktinek, bai diktadura frankistarenek, hainbeste familia nafar jo zuen errepresioaren biktinek.

Berdintasunaren arloan, helburu handi bat dugu: gure lurretik desagerraraztea ekintza eta jarrera sexistak, eta, dagokigun erantzukizuna geure gain hartuz, erakundeetan konpromisoak eta neurriak hartzea bide horretan.

Gure garapen ekonomiko eta sozialaren erreferente nagusia Europa da, eta hor dugu jarria gure begirada. Horregatik, abian jarri dugu berriz Bruselako bulegoa, Nafarroako herritarren, enpresen eta erakundeen zerbitzura ari dadin.

Lankidetzeta da gaur eguneko desafio sozioekonomikoei aurre egiteko bide baliotsuena eta inteligenteena. Horregatik, garrantzi berezia ematen diogu Akitaniarekin eta Euskadirekin batera Euroeskualdean parte izateko aukera ematen digun akordioari. Akordio hau, aukera sozial, ekonomiko eta kultural berrietarako ate izateaz gainera, bide egokia da Europan dugun eragina eta garrantzia handitzeko.

Euskara gure ondare immaterial kultural eta historiko nagusietakoa da. Horregatik, neurriak hartu eta ezarri dira euskararen aldeko estimua Nafarroa osora zabaltzeko. Hizkuntz eskubideak itzuli zaizkie milaka nafarri, askok eta askok, bere hizkuntzatzat hartzeaz gainera, euskaraz bizi nahi baitute arlo pertsonalean zein profesionalean, inolako kalterik ekarri gabe, jakina, hori bera gaztelaniaz edo ingelesez egin nahi dutenei”.





1. Biktimei laguntza emateko politikaren ezarpena
Lehen aldiz ezarri dira biktimei arreta emateko politikak, Memoria, Egia, Justizia eta Erreparazioa eskaintzeko konpromisoaren barnean.

2. Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Ekintza Plana
6 urtean gauzatu beharreko jarduketak (2016-2021). 22,5 milioi euroko aurrekontua du, osotara.

3. EAerekiko lankidetzaren hitzarmena berritzea
Aragoierekin eta Errioxarekin sinatutakoen antzera, Euskal Autonomia Erkidegoarekin elkarlanean aritzeko Protokoloa sinatu da.

4. Euskalerrria Irratiaren emisioen erregularizazioa
19 urteren ondoren, behin betiko ebatzi da Euskalerrria Irratiaren auzi-mauzia. Jada normaltasunez ari da emititzen, Iruñeko 98.3 FM frekuentzian.

5. Europako Ekintza Plana eta Nafarroaren Ordezkaritza Bruselan
Bere bulegoa ireki du, berriz ere, eta Nafarroako Gobernuaren Europako Ekintza Plana abiarazi.

6. Bake eta Bizikidetzaren aldeko Eskolen Programa
Hezkuntza erkidego guztiari (irakasle, ikasle, familia) zuzenduriko 120 jarduera; haietan, 3000 lagunek eta 57 ikastetxek parte hartu dute, osotara.

7. EITBren seinalearen kaptazioa
Berriz ere ikus daiteke EITB Nafarroan, UPNren Gobernuaren salaketa batek eragin zuen itzalketaren ondoren.

8. Jauregiko aitzinaldetik ereinotza kentzea
Nafarroako armarritik ereinotza frankista kendu da eta, haren ordez, beirate bat paratu da armarriri ofizialean.

9. Euskararen Plan Estrategikoa
Planak erantzun egokia ematen dio herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubideari, eta definitzen ditu hori ahalbidetzeko tresnak eta neurriak, eskubide hori babestu eta garatzeko.

10. Euskadi-Akitania euroeskualdean sartzea
Nafarroa "Akitania-Euskadi-Nafarroa" euroeskualdeari atxikita, posible izanen da lankidetzaren eta lurralde honen kohesio ekonomikoa eta soziala indartzea, Nafarroako lurraldea isolamendutik aterata.

11. LGTBI kolektiboari Laguntza Emateko Unitatea
Administrazio unitate baten sorrera, kolektibo honen eskubideen berdintasun erreala sustatzeko xede garbiz.

12. Herritarren Parte-hartzea Sustatzeko Nafarroako Plana
Plana 1,9 milioi euroz horniturik egonen da 2019 arte, herritarren engaiamenduan bidea egiteko Administrazioaren eta Gobernuaren erabaki eta jarduketetan.

13. Lankidetzaren hizkuntza politikan
Hiru lurraldeetan euskara sustatzeko hitzarmena sinatu da, errespetu instituzionala oinarri.



BERDINTASUNA

BAIT:
GENERO INDARKERIAREN
BIKTIMEI ARRETA INTEGRALA
EMATEKO TALDEAK

Iturria: Nafarroako
Gobernua.

**NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO
INSTITUTUAK 2012TIK 2016RA EXEKUTATUTAKO
AURREKONTUA, ETA 2017RAKO AURREIKUSITAKO
AURREKONTUA, EUROTAN**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.



BAKEA ETA BIZIKIDETZA

2015 ARTE EZ ZEN DESEHORZKETA BAKAR BAT ERE EGIN NAFARROAKO GOBERNUAK BULTZATUA URTE HARTARAINO, MEMORIA HISTORIKOAREN ALDEKO ELKARTEEK BURUTU ZITUZTEN EKIMEN GUZTIAK


Iturria: Nafarroako Gobernua.



		EGOERA	DESEHORTZIEN KOPURUA	IDENTIFIKATUEN KOPURUA
1. Ibero*	2015	E	7	3
2. Olabe	2016	E	16	
3. Zizur Nagusia. Las Tetas	2016	P		
4. Zizur Nagusia. Ardoi	2016	P		
5. Agalde	2016	P		
6. Paternain	2016	P		
7. Markalain (Txulapain)	2016	P		
8. Nabatz (Txulapain)	2016	P		
9. Usi (Txulapain)	2016	P		
10. Anoz (Txulapain)	2016	P		
11. Urdotz	2016	P		
12. Saigots	2016	P		
13. Usetxi	2016	E	3	
14. Otsoportillo	2016	E	9	4
15. Legarre (Gaztelu)	2016	E	7	7
16. Lantz	2017	P		
17. Etxauri	2017	P		
18. Burutain	2017	E	6	
19. Anotzibar	2017	P		
20. Ostitz	2017	P		
21. Agorreta	2017	E	1	
22. Urtasun	2017	E	5	
23. Lintzoain	2017	E	2	

P: Aztertuak E: Desehortziak

*Lehenagoko diru-laguntza programatik heldu den desehorzketa



EUSKARA



**EUSKARABIDEAREN
AURREKONTUA, OSOTARA**

Berriz ere indarrean jarri dira euskara sustatzeko laguntzak, toki entitate, hedabide eta helduen ikastegiendako.

Iturria: Nafarroako Gobernua.

**KONPROMISOA
HIZKUNTZA POLITIKAREKIN**

Iturria: Nafarroako Gobernua.






EUROPA


EUROESKUALDEA

Iturria: Nafarroako Gobernua.



EBREN DIRUEN ITZULERA NAFARROAKO ENTE PUBLIKOEI, PROGRAMA HAUEN BITARTEZ

Iturria: Nafarroako Gobernua.



HEZKUNTZA

“Gobernu honek, hezkuntzaren arloan, bi ditu helburu nagusiak: hezkuntzaren kalitatearen alde lan egitea, eta eleaniztasuna bermatu eta bultzatzea.

Programa-akordioak agerian uzten du hezkuntzak tresna izan behar duela bai gizartearen eta lurraldearen kohesiorako, baita transformazioa bultzatzeko ere.

Berriki onetsi den Lanbide Heziketaren planaren bitartez, argia izan da gure helburua: hezkuntzaren eskaintza Nafarroaren behar sozial eta ekonomikoetara eta transformazio teknologikora egokitzea.

Kontu akademiko hutsetatik haratago, hezkuntza funtsezko zutabea da berdintasun eta zuzentasun jarrera nahiz balioak bultzatzeko, baita lankidetzaren eta sormena pizteko ere, zeharkako gaitasun hoiek ezinbestekoak baitira berrikuntzarako, hots, gure gaur egungo gizartearen mugiarazteko”.



**1. D ereduan matrikulatzeko eskubidea Nafarroa osoan**

Euskararen 18/1986 Foru Legearen aldaketarekin betetzeko eta akordio-programa jarraituz, hau da, hizkuntza aniztasuna sustatzea Nafarroako berezko bi hizkuntzen ezagutzatetik abiatuta, Nafarroa osora zabaldu da D ereduan matrikulatzeko eskubidea, baita eremu ez euskaldunetan ere.

2. Laguntza programa: elkarbizitarako eta eskola jazarpenari aurre hartzeko hezkuntza

7 ikastetxe pilotutan, 2016-2017 ikasturteak. Hezkuntzan elkarbizitza eta eskola-jazarpen klasikoari nahiz IKT bidezkoari aurre hartzeko estrategiak eta metodologiak artikulatzen ditu, irakasleen formazioa eta trebakuntza hobetuz bullying kasuak identifikatzeko, aurreikuszeko eta esku hartzeko, hezkuntza komunitate osoa inplikatur.

3. Gelako ikasle kopurua jaistea Haur eta Lehen Hezkuntzan

Taldeko 25 ikaslerari jaitsi da ikasle kopurua 2016-2017 ikasturtean. Horrek 63 talde berriren sorrera eta 66 irakasleren kontratazioa ekarri du: 2.430.000 euroko inbertsioa.

4. LEP Lehen Hezkuntzan

Lan eskaintza publikoa Lehen Hezkuntzan; bost urtetan egindako lehenengo LEP. 200 plaza deitu ziren hezkuntzako lan-talde organikoak finkatzeko eta bitarteko izaera duten lanpostuak gutxitzeko.

5. Unibertsitate-ikerketaren alde

Doktorego programaren laguntza-deialdia berreskuratu da, ikerlari gazteek tesiak egin ditzaten Nafarroaren intereserako gaiez; nazioarteko egonaldiak egiteko laguntzak ere gehitu dira. Guztira, 52.500 euro 2016an; 376.000 euro, 2017an.

6. 0-3 zentroak: 1,1 milioi euroko partida gehitzea, tarifak merkatzeko

Errentaren araberrako tarifeak gehitu dira, ordaindu beharrekoak jaisteko: tarifa-jaitsiera handiagoa errenta baxuenetan. Guraso bakarrek familiak eta familia ugariak modu espezifikoan gehitu dira.

7. Irasleen aldi baterako kontrataziorako aplikazio telematikoa

Aldi baterako irakasleak behar direnean erabiltzen da, bai sortutako premia berriei erantzuteko, bai ikasturtean zehar ordezkapenak egiteko. Kontratazioak azkartu dira.

8. Hezkidetza plana: bizi-proiektua berdintasunean garatzeko gaitasunak

Progresiboki eta era integratuan ezarriko da Nafarroako hezkuntza sistema guztian, 0-3 urtetik 18 urtera arte, hurrengoak lantzeko: pertsona autonomia, independentzia eta enplegua, sexualitatea, elkarbizitza, indarkeria matxistari aurre hartzea, lidergoa, banakako eta taldeko ahalduntzea, ezberdintasunen kontzientzia eta aldaketarako gaitasuna.

9. Aniztasunaren Trataera Plana (borradorea)

Ikasle guztiei kalitatezko erantzun hezigarria emateko, zuzentasunetik beharrianak identifikatur. Irailean Nafarroako Gobernuaren gardentasun webgunera gehituko da plana. Zaintzaile-kopurua hobetu da: 5.783 ordu 2016an; 7.000 ordu, 2017an.

10. Lansaio jarraitua ikastetxeetan

Bigarren zikloko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan ezarritako lanaldi jarraituaren inguruko hausnarketa eta bozketa prozesua ahalbidetu da. 73 ikastetxek aukeratu dute lansaio jarraitua.

11. Landa eremuko eskolak

Landa eremuko izaeradun 79 eskola daude Nafarroan. 2016-17 ikasturtean, eta Eskola Kontseiluak antolatutako jardunaldien harira egindako Landa-eremuko Eskolen monografikoaren ondoren eratorritako lan-taldek, landa eremuko eskolen egoera jaso duen dokumentua egin da etorkizuneko lan-ildoak jasoz. Lan-taldek jarraipena izango du 2017-18an.


12. Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoa

Hezkuntza, Garapen ekonomikoa, Eskubide sozialak eta Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa departamentuek uztailean 3an aurkeztu zuten Lanbide Heziketa plana, dokumentua landu duten ehunka eragilerekin batera. Plana Espezializazio Adimentsuaren Estrategiako (Nafarroa-S3) estrategian ezartzen da. Era berean, Lanbide Heziketaren Nafarroako Kontseiluaren eraketa zabaldu da, 15 kide 25era.




**DERRIGORREZKOAK EZ DIREN IKASKETAK
ETA UNIBERTSITATEKOAK EGITEKO BEKAK**

Iturria: Nafarroako Gobernua.



**IKASLE KOPURUA GUTXITU
DA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN**

Iturria: Nafarroako Gobernua.



**HAUR ETA LEHEN
HEZKUNTZAN**

25
ikasle

gelako



DATU AIPAGARRIAK:

Lehenengoz **2016-2017** ikasturtean

63 talde gehiago sortu ziren


66 irakasle gehiago kontratatu ziren

2.430.000 euroko inbertsioa 16-17 ikasturtean




**INBERTSIOA HEZKUNTZA
AZPIEGITURETAN**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.



**INBERTSIOA IKASTETXEEN
MANTENTZE-LANETAN**


Iturria: Nafarroako
Gobernua.






**NUPEN
FINANTZAZIOA**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.



**INFORMATIKA EKIPOAK
IKASTETXEETAN**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.






LANBIDE HEZIKETAREN PLAN ESTRATEGIKOA

TALDE KOPURUA LEHENENGO MAILAN, IKASTURTEZ IKASTURTE

Iturria: Nafarroako Gobernua.

ERAGIN ADIERAZLEAK

Iturria: Nafarroako Gobernua.



- NAFARROAKO ESPEZIALIZAZIO ADIMENTSUAREN ESTRATEGIAREN 6 ARLOETARA ZUZENTZEA ERREKURTSOEN %80**
- LANBIDE HEZIKETAK LURRALDE OSOKO AKTIBITATE EKONOMIKOEN BEHARRIZANAK ASETZEA**
- %80KO LANERATZEA** LORTZEA LANBIDE HEZIKETA IKASLEEN ARTEAN
- EMAKUMEAK IZATEA LANBIDE HEZIKETAN** ARI DIREN IKASLEEN %45
- 12.000** IKASLETARA IRISTEA LANBIDE HEZIKETA ZIKLOETAN
- ATZERRIAN** PRAKTIKAK EGITEN DITUZTEN IKASLE-KOPURUAN **280RA** IRISTEA
- 122** ESPEZIALITATE PRESTAKUNTZA ESKAINTZEA
- METODOLOGIA AKTIBOAK** APLIKATZEA LANBIDE HEZIKETA ZENTROEN %100EAN

OSASUNA

“Osasuna -eta horretaz baliatzeko eskubidea- ongizatearen gizarte deitzen dugun horren zutabe nagusietakoa da. Nafarroan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua izateko zoriona dugu, gure gizartearen oinarritzko baliabidea baita: kalitateko zerbitzua da milaka profesionalen lan bikainari esker, egunero-egunero frogatzen digutenez.

Gobernu honek arlo honetan duen konpromisoa Osasunari merezi bezalako aurrekontua ematea da. Horregatik, osasuna da Nafarroako gizartearen zerga-esfortzuaren helburu nagusia.

Esfortzuak, jakina, aurrekontuan egin ziren murrizketen eragin kaltegarria desagerraraztea du helburu, baita egoera hobetzea ere behar diren azpiegiturez eta langileez hornituz. Horri begira egin ditugu ahaleginak, enpleguaren eskaintza publikoan eta ebakuntza-geletako inbertsioetan bereziki. Gainera, itxaron-zerrendak ere murriztu ditugu, aurrera egin dugu berdintasunean botiken koordainketarako laguntzak ezarriz, eta zerbitzu publikoen defentsa egin dugu, konparazio batera, ospitaleko lehengo sukalde sistemara itzuliz.

Gerora begira, transformazio handiak egin behar dira osasun arloan, eta hori egiteko konpromisoa hartua dugu. Horretan, funtsezkoa da berrikuntzei arreta ematea, berrikuntzak aurkikuntza teknologikoetarako bide baitira, eta, dudarik gabe, errotik aldatuko baitute gaur egun ezagutzen dugun osasun laguntza”.





1. Osasun arretarako eskubide unibertsala bermatua
Osasun arretaren unibertsaltasuna pertsona ororentzat bermatua Nafarroan bizi diren lehen egunetik.

2. Itxaron zerrendak murrizteko estrategia integrala
Itxaron zerrendak murrizteko estrategia ezarri da, epe labur, ertain eta luzerako neurriekin.

3. Koloneko edo ondesteko minbizia garaiz detektatzeko programaren hedapena
2016ko urtariletik, Nafarroa osoko 50 eta 69 urte bitarteko 64.255 pertsona gehiago joan dira sartzen programa honetan.

4. Ekitatea eta familiendako aurrezpena, pneumokokoaren aurkako txertoarekin
Pneumokokoaren aurkako txertoa lortzeko ekitatea bermatu da, eta txertoa eman zaion haur bakoitzeko 305 euro aurreztu dute familiak.

5. Ospitaleguneko larrialdiak hobetzeko plana
Paziente larriak artatzeko denborak murrizteko plana, beste

ekintza batzuen artean, plantilla handitzea eta ekipamendua eskuratzeko dakarrena.

6. Paziente kronikoen programaren hedapena
Nafarroako herritar guztiak artatzen dituzten 56 oinarritzko osasun eskualdeetara hedatu da estrategia, oso ohikoak diren bost eritasunetarako: diabetesa, bihotz-gutxiegitasuna, dementzia, fibromialgia eta eskizofrenia.

7. Laneko giroaren gaineko 1. inkesta Osasunbideko langileei
4.226 profesionalak parte hartu dute Osasunbideko langileen gogobetetasun maila eta iritzia ezagutu eta hobekuntza ekintzak ezartzeko egin den 1. inkestan.

8. Proba diagnostikoak asteburuetan
2016ko urritik aitzina, Ospitalegunean asteburuetan ere egiten dira proba diagnostikoak, itxaron zerrendak murrizteko eta herritarrek eskurago izan ditzaten.

9. Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko

politika berria
Dekretu berria sare publikoan haurdunaldiaren borondatezko etendura bermatzeko, beste prestazio batzuen artean.

10. Reina Sofia Ospitalean teleiktusa abiaraztea
Tuteran teleiktusa ezartzea, patologia hori berehala tratatu ahal izateko eta, hala, eskualdeen arteko ekitatea hobetzeko.

11. Ospitalegunean, haurren 4. solairuaren eraberritzea
Haurren 4. solairuaren eraberritzea ospitaleratze baldintzak eta profesionalen lantokia hobetzeko.

12. NUP IdiSNAn sartzea
NUP Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuan sartzeko akordioa, funtsezkoa baita Nafarroarako estrategikoa den proiektuaren jarraipena bermatzeko.

13. Onkohematologiako eguneko ospitalearen irekiera Tuteran
Reina Sofia ospitaleko onkohematologia arloaren berritzeari

esker, pazienteei eskaintzen zaien arretaren kalitatea eta segurtasuna hobetuko da.

14. Ospitaleguneko sukaldeen lehengoratzea
Sukaldeen kudeaketa publikoa berreskuratzea, elikaduraren kalitatea hobetzeko, sendatze terapeutikorako funtsezko laguntza baita.

15. Kirofano berrien irekiera Ospitalegunean
Azken belaunaldiko teknologiaz hornituriko 8 kirofano berri martxan jartzea. Horiei esker, urtean 700 bat ebakuntza gehiago egin ahal izanen dira.


16. Laneko istripuen prebentziorako programa berria
Osasun Publikoaren Institutuaren bisitaldi kanpaina laneko istripu gehien izaten duten jarduera ekonomikoetako enpresetara, istripuak eta bestelako kalteak murrizteko xedearekin.

17. Koordainketa farmazeutikorako laguntzak
Nafarroak diruz laguntzen du koordainketa farmazeutikoa. 242.000 onuradun izan daitezke eta 2.000.000 euroko kostua aurreikusi da.




**LAN PUBLIKOAREN
ESKAITZAK**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.



**OSASUN ARLOKO
AURREKONTUA**


Iturria: Nafarroako
Gobernua.



ITXARON ZERRENDAK



LEHENBIZIKO KONTSULTA

Iturria: Nafarroako Gobernua.



DATU AIPAGARRIAK:


LEHENBIZIKO KONTSULTA

- 
 2015eko ekainean baino **9.875** **paziente** gutxiago lehenbiziko kontsulta baten zain.
- 
 2015eko ekainean baino **13** **egun** gutxiago lehenbiziko kontsulta baten zain.

ITXARON ZERRENDAK


EBAKUNTZA KIRURGIKOAK

Iturria: Nafarroako Gobernua.



BERMEEN LEGETIK KANPO DAUDEN PAZIENTEAK

Iturria: Nafarroako Gobernua.



DATU AIPAGARRIAK:

EBAKUNTZA KIRURGIKOAK

2015eko ekainean baino **1.267** **paziente** gutxiago ebakuntza baten zain

2015eko ekainean baino **15 egun** gutxiago ebakuntza baten zain.


BERMEEN LEGETIK KANPO DAUDEN PAZIENTEAK

2015eko ekainean baino **404** **pertsona** gutxiagok gainditzen dute Berme Kirurgikoen Legean ezarritako itzarote denbora



**ETXEKO
OSPITALERATZEKO
OHE KOPURUA**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.



**OSASUN ETXEETAKO
EKOGRAFO KOPURUA**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.






NAFARROAK DIRUZ LAGUNDUKO DU

FARMAZIA-GASTUAREN KOORDAINKETA

242.000

BALIZKO ONURADUN




45.000

PENTSIODUNEK



197.000

JARDUNEKO PERTSONAK



6.000€ eta 18.000€ arteko errentak dituzten pentsiodunen egoera ez da aldatuko, jada 8,23€ ordaintzen baitute gehienez hilean.

6.000€ eta 18.000€

arteko errentekin



ORDAINDUKO DUTE GEHIENEZ

8,23

€/HIL

< 6.000€-tik

beheitiko errentekin



ORDAINDUKO DUTE GEHIENEZ

2,6

€/HIL

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA


“Kultura denon ondarea da, eta hala dela aintzat hartuz zaindu beharko genuke erakunde publikoetan, baliabide eta aurrekontu egokiak ziurtatuz.

Sormen industriak estrategikoak dira Nafarroako etorkizuneko garapenerako. Halaxe erabaki da S3-an, eta, horregatik, Nafarroako sare artistiko kulturalari laguntzea izan da gure funtsezko helburua, 948 Merkatua izeneko ekimenaren bitartez, esate baterako.

Kirolari dagokionez, protagonismoa oinarrizko kirolari ematea izan da funtsezko helburua, lehenbizi federazioekin lan eginez. Besteak beste, zerga-malgutasunerako neurri bat onetsi da, irabazi-asmorik gabeko kirol entitateek kudeaketa lana errazago egin dezaten.

Gazteriaren arloan, argia da gobernu honen filosofia: zeharkako elementua da, gobernu honen arlo guztietako zeregina blaitzen duena. Garbi dugu, bestalde, gazteriaren arloko politikak garatzeko, protagonista nagusiekin batera egin behar dela lan, gazteekin alegia. Halaxe egin da, adibidez, Gazteriaren arlorako Estrategia eta Planarekin, zeinean entitateen, elkarten eta partikularren 536 ekarpen bildu baitira“.





KULTURA

1. Sormenaren industria sustatzea

Kulturaren parte-hartzea Eskualdeko Plan Estrategikoaren batzorde publikoan eta plataforma estrategikoan eta RIS3 planteamendua. Sormenaren industria sartzeta eta abian jartzea "948 Merkatua", arteen Nafarroako lehen azoka.

2. Etapa berria Baluarte Fundazioan, NOS barne hartuz

Zuzendaritza propio berriarekin eta NICDO sozietate publikotik bereizirik, Fundazio horrek bere gain hartu du Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, haren jarraitutasuna bermatuz, eta programazio ildo berriak irekiz.

3. Lehiaketa publikoak zuzendaritza berrietarako

Etapa berria hasia duen Baluarte Fundazioan, lau emakume batera zuzentzen duten UAGZn, eta Baluarte Fundazioarekin lankidetzan Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatzen dituen jaialdi nagusietako zuzendaritza artistikoetan.

4. Aurrekaririk gabeko parte-hartze prozesua Kulturaren eta KPE martxan jartzea

601 ekarpen jasotzen dira Kulturaren Plan Estrategikoa egin aurretik Kultura Zuzendaritza Nagusiaren ekintza planerako antolatutako parte-hartze prozesuan.

5. Funts gehiago liburategietarako

380.000 euroko lehiaketa publikoa liburuak eta ikus-entzunezko materialak erosteko, 2016an erostetarako zegoen aurrekontua bikoiztuz.

6. "Landarte", arte eta landatartasun programa, abian jartzea

Arte eta landatartasun programaren lehen edizioa 10 herritara iritsi da, herritarrek arte proiektu kolektiboetan inplikaturik.

7. Musikako eta arte eszenikoetako artxiboa

Musikaren, dantzaren eta antzerkiaren ondare dokumentalarekiko konpromisoa, kasu batzuetan kontserbazio egoera larrian baitago.

KIROLA ETA GAZTERIA

8. Kirol eta kultura entitateentzako fiskalitatea malgutzea

Kirol entitateei aholku emateko bulego bat abian jartzea, gida bat argitaratzea eta Nafarroako zenbait tokitan prestakuntza ematea.

9. "Kirola eta Emakumea" Plana eta "Kirolaren Balioak" Plana

Emakumeak kirolean presentzia izan dezan laguntzea eta kirolaren balioen aldeko apustua egitea, gatazketarako bitartekaritza zerbitzu berria eskainiz; lehen bi hilabeteetan, 11 kasu erregistratu dira zerbitzu horretan.

10. Miguel Indurain Fundazioa

Fundazio publikotzat jotzen da, Kontuen Ganberaren aholkuekin bat. Goi errendimenduko kirolari laguntzeko helburuarekin jarraitzen du eta, horrez gain, prestakuntza edo ikerketa ekintzak egiten ditu, besteak beste.

11. Navarra Arena irekitzeko plana

2018ko irailean irekiko dela aurreikusten da. Bertan izanen dira NKGLren egoitza eta federazioak. Kudeaketa publikoaren aldeko apustua egin du, NICDO sozietate publikoaren bitartez.

12. Gazteriaren Estrategia 2017-2020 eta Gazteriaren II. Plana 2017-2019

Gobernua Gazteriaren arloko politikekin konprometitzen duten 153 ekintza, departamentu guztietakoak. Prozesu horretan 3000 gaztek baino gehiagok hartu dute parte.

13. Aurrekontu parte-hartzaileak


30.000 euroko aurrekontua, gazteen ekimenez egiten diren proposamenetarako.



AURREKONTUAREN GEHIKUNTZA 2016-2017


Departamentuaren (hasierako) aurrekontua gehitu da: %10,5

Iturria: Nafarroako Gobernua.




NKGI-KO LAGUNTZEN DEIALDIETARA BIDERATURIKO AURREKONTUA

Iturria: Nafarroako Gobernua.



KULTURAKO LAGUNTZEN DEIALDIETARA BIDERATURIKO AURREKONTUA

Iturria: Nafarroako Gobernua.





**PARTE-HARTZEA:
GAZTERIAREN II. PLANA**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.



10

**PARTE-HARTZE
LANTEGI**

(173 gazte)

10

**MAHAI
TEKNIKO**

8

**ESKUALDEKO
FORO**

(90 parte-hartzaile)

536

**EKARPEN
IZAN ZIREN**






GAZTERIA. JOERA ENPLEGU ZIFRETAN

LANGABEZIAREN BEHERAKADA

Langabeziaren bilakaera gazteen artean (<30 urte).


Iturria: Egileek prestatua, Enplegu Zerbitzu Publikoen Informazio Sistemaren (SISPE) datuak erabilia.



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN GEHIKUNTZA

Gazteen Gizarte Segurantzako afiliazioa (<30 urte).

Iturria: Egileek prestatua, afiliazio datuak erabilia (Gizarte Segurantzako Diruzaintza). Hilabete bakoitzeko azken eguna.



LANDA GARAPENA, INGURUMENA ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


“Nafarroa, berriki arte, abeltzaintzan eta nekazaritzan oinarritutako lurraldea izan da. Gure indarguneetako bat izan da, baita nortasun ikur ere, industria bizkortu zen arte eta herrietatik hirietarako migrazioa gertatu zen arte.

Lurralde-kohesioan aurrera egiteko oinarriak finkatu dira, eta, Nafarroako garapen jasangarrirako, aldaketa klimatikoaren kontrako borroka eta natur baliabideen optimizazioa dira zutabe.

Planak eta neurriak ezarri ditugu Nafarroan bizi diren pertsona guztiek, beren hurbileneko ingurunean, herri handietan eta hirietan bizi direnen mailako dotazioak eta prestazioak izan ditzaten eta ez kaskarragoak.

Gure departamentuak herrietako bizimodu garaikidea eraikitzeko abian jartzeko politiken zutabeak hauek dira: gure herrietako bizilagunen protagonismoa, Nafarroako Landa Garapeneko 2014-2020ko Plana, toki erreformaren proposamena, aldaketa klimatikoaren kontrako borroka eta uraren kudeaketa. Politika horiek guztiak bat heldu dira Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendaren eginkizun eta helburuak”.





1. Nafarroako Landa Garapeneko 2014-2020ko Plana onetsi da, eta 320 milioi euroz hornitu

Aurreko Gobernuak prestatutako programari Bruselak egindako oharrak zuzendu dira (400dik goiti).

2. Udalen gastuetarako aurrekontua handitu da

Programa-akordioarekin bat, KPI + 2 puntuko gorakada aplikatzen da urtero, toki entitateen finantza iraunkortasuna bermatzeko.

3. Hasiera eman zaio Nafarroako Toki Administrazioa Berritzeko Prozesuari

Eztabaida toki entitateen eskumenen banaketaz, antolaketaz eta finantzaketaz, toki administrazioa modernizatzeko eta arrazionalizatzeko eta autonomia handiagoa emateko.

4. 100 milioi euro toki entitateen inbertsioak finantzatzeko

Toki Azpiegituren 2017-2019ko Planari buruzko Foru Legea onetsi da. Oinarrizko azpiegitura eta instalazio hobek jarriko dira gure herrien eskutan.

5. Nafarroako Hondakinen 2017-2027ko Plana onetsi da

Nafarroa erreferentziazko gizarte bilakatu nahi dugu ekonomia zirkularri dagokionez, gutxitzeko, berrerabiltzeko, konpontzeko eta birziklatzeko araua aplikatuz.

6. Erribera edateko, industriarako eta ureztatzeko uraz hornitzeko aukeren gaineko azterlana aurkeztu da

Nafarroako Gobernuak bere konpromisoa eta borondatea adierazi du Nafarroako Erriberaren eskakizunak betetzeko, ureztatzeko eta edateko kalitatezko urari dagokionez.

7. Nafarroako sektore ekologikoaren aldeko apustua

Lehen aldiz, unitate berariazkoa sortu da ekoizpen mota honen aldeko apustua egiten duten nekazari eta abeltzainei zerbitzu osoa eskaintzeko eta horren inguruko estrategia moldatzeko.

8. Landa Garapeneko 2014-2020ko Programaren aldaketak onetsi dira

14 milioi euro, nekazaritza, ingurumen eta ekologia arloko neurrietan eta naturak mugatutako eskualdeetan, baita Nafarroako tokiko ekintza taldeetan, bidea egiten hasteko eredu jasangarriagoetara.

9. Klima aldaketari buruzko ibilbide-orriaren zirriborroa aurkeztu da

Zeharkakotasunez erabiltzeko tresna izanen da, neurriak hartzeko aukera emanen duena berotegi efektuko gasak murrizteko, kalteak apaltzeko eta tenperaturen igoeraren ondorioetara egokitzeko.


10. Nafarroako kontserbazio bereziko eremuen xedeak, lehentasunak eta ekintza ildoak definitu dira

Burutzapena eman dio Nafarroako Natura Sareko naturgune babestuak kudeatzeko planen prestatetari. Europaren galdea zen, 2011rako bururaturik egon behar zuena.



LANDA GARAPENeko 2014-2020ko PLANAREN LEHENTASUNEZKO EREMUAK.


Iturria: Nafarroako Gobernua.



- Ustategien bideragarritasuna, lehiakortasuna eta berrikuntza eta oihanen kudeaketa jasangarria hobetzea
- Elikatearen antolaketa sustatzea
- Nekazaritzarekin eta oihangintzarekin loturiko ekosistemak berrezartzea, zaintzea eta hobetzea
- Baliabideen efizientzia sustatzea eta karbono gutxi erabiliko duen ekonomiarako trantsizioa sostengatzea
- Gizarteratzea, pobrezia gaitzea eta garapen ekonomikoa sustatzea landa eremuetan
- Beste batzuk

LGParen ALDAKETA: 14 MILIOI EKOIZPEN EREDU JASANGARRIAK INDARTZEKO.

Iturria: Nafarroako Gobernua.



GUZTIRA: 14.009.000€

DATU AIPAGARRIAK:

LANDA GARAPENeko PLANAREN EXEKUZIOA

DEITUA

● %50,83
 ● 161,6 milioi €

GAUZATUA

● %13,81
 ● 49,9 milioi €


NPEAREN KUDEAKETA EFIZIENTEA

● 100 milioi €/urteko
 ● 12.713 hartzaile

2017-2019KO TIP BERRIAREN 100 MILIOIEN BANAKETA, PROGRAMEN ARABERA


34 MILIOI EURO, INBERTSIO PROGRAMAKOAK

Iturria: Nafarroako Gobernua.




23 MILIOI EURO, LIBREKI ERABAKITZEKOAK

Iturria: Nafarroako Gobernua.



43 MILIOI EURO, TOKI PROGRAMAZIOKOAK

Iturria: Nafarroako Gobernua.



DATU AIPAGARRIAK:

DIRU GEHIAGO TOKI ENTITATEEN INBERTSIOETARAKO

33,3 milioi €/urteko
(urteko batezbestekoa, 2017-2019an)

AURREKONTU HANDIAGOA UDALEN GASTUETARAKO

TRANSFERENTZIA
ARRUNTEN FUNTSA

2016

▲ 4 milioi €
(2015aren aldean)

2017


▲ 2,6 milioi €
(2016aren aldean)

ZERGA HOBARIEN
KONPENTSAZIOA

2,9 milioi €

**AURREKONTUAREN
BILAKAERA
INGURUMENEAN
ETA LURRALDEAREN
ANTOLAMENDUAN**

Iturria: Nafarroako
Gobernua.



- Lurralde Antolamendua
- Ingurumena
- LA+I

2017-2027KO NHParen XEDEAK
Etxeetako eta saltokietako hondakinak

Iturria: Nafarroako Gobernua.

+GEHIAGO

Gaikako bilketa
Gaika biltzea etxeo eta saltokietako hondakinen %65
Hondakin organikoen gaikako bilketa nahitaezkoa herritarren %100era zabaltzea

Enplegua
350 lanpostu inguru sortzea

Tratamendua
Errefusaren %100 tratatzea

-GUTXIAGO

Hondakinak
%10 gutxiago 2020an eta %12 gutxiago 2027an

Errefusa
Errefusa gutxitzea, %35 izan dadin

Isurketa
Zaborteigira doan errefusa %63tik %25era pasatuko da

DATU AIPAGARRIAK:

**HIRIGINTZA
PLANEN DESBLOKEOA**

10 udal plan orokor onetsi dira

10 lankidetzak hitzarmen sinatu dira udalekin

4 lankidetzak hitzarmen bidean daude udalekin sinatzeko


7 Udalek definitu dituzte lurraldea okupatzeko estrategia eta ereduak (LOEE)

**NAFARROAKO
HONDAKINEN PLANA**

+50.541 Bisitatik goiti Nafarroako Hondakinen Planaren webgunean

2.365 Ekarpak norbanakoek

130 Alegazio



Nafarroako
Gobernua

Gobierno
de Navarra